

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

OSASUN SAILA

1567

48/2008 EBAZPENA, otsailaren 11koa, Donostia Ospitaleko zuzendari kudeatzailearena, Donostia Ospitaleko zuzendariorde mediko lanpostua betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.

Donostia Ospitaleko zuzendariorde mediko lanpostua hutsik dago. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiruugarren arauan (uztailaren 21eko EHAA, 138. zk.) eta Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan (irailaren 7ko EHAA, 170. zenbakia) ezarritakoaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du zuzendaritza honek. Hona hemen

OINARRIAK:

Lehenengoa.– Donostia Ospitaleko zuzendariorde medikoaren lanpostua (Gipuzkoako Osasun Barrutia) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoek (funtzionario, estatutupeko edo lan-kontratukoek) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko nahiz bere Erakunde Autonomoetako funtzionarioek eska dezakete. Honako eskakizun hauek bete behar dituzte:

1.– Ikasketa-titulua.– A1 taldeko edozein unibertsitate-lizentziatura eduki beharko dute.

2.– Hizkuntza-eskakizuna: 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

3.– Esperientzia.– 5 urteko esperientzia izan beharko dute, A1 taldeko zereginetan.

Bigarrena.– Interesatuak Donostia Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 10 egun baliouduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez ditzakete eskabideak.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

1567

RESOLUCIÓN n.º 48/2008, de 11 de febrero, del Director Gerente del Hospital Donostia, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión del puesto de trabajo de Subdirector/a Médico/a, del Hospital Donostia.

Encontrándose vacante el puesto de trabajo de Subdirector/a Médico/a del Hospital Donostia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28, norma común tercera, de la Ley 8/1997 de 26 de junio (BOPV n.º 138, de 21 de julio), de Ordenación Sanitaria de Euskadi, y en el Decreto 186/2005 de 19 de julio (BOPV n.º 170, de 7 de septiembre) por el que regulan los Puestos Funcionales en Osakidetza, esta Dirección acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes

BASES:

Primera.– El puesto de trabajo Subdirector/a Médico/a, del Hospital Donostia, que se convoca mediante la presente Resolución, podrá ser solicitado por el personal fijo (funcionario, estatutario o laboral) adscrito a las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como por el personal Funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, y por aquel otro personal siempre que reúna los siguientes requisitos:

1.– Titulación académica.– Hallarse en posesión de cualquier Licenciatura Universitaria de las referidas en el Grupo A1.

2.– Perfil lingüístico.– Perfil lingüístico 2, sin fecha de preceptividad.

3.– Experiencia.– Disponer de 5 años de experiencia en el desempeño de tareas propias del Grupo A1.

Segunda.– Los/as interesados/as dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal del Hospital Donostia dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek Curriculum Vitae aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera, honako hauek adierazteko:

- Ikasketa-tituluak.
- Betetako lanpostuak.
- Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan duten espezializazioa.
- Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta adierazteko modukotzat duten beste edozein merezimendu.

Eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen frogagiriak aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egoki deritzoten beste edozein agiri aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Gerentzia honen ebazpenaren bitartez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Donostia-San Sebastián, 2008ko otsailaren 11.

Donostia Ospitaleko zuzendari kudeatzailea,
MÁXIMO GOIKOETXEA FERREIRO.

Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

1568

AGINDUA, 2008ko urtarrilaren 29koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, Antonio Oteiza Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.

Azkoitiko (Gipuzkoa) Antonio Oteiza Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedienteak ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

1.– «Kukuherrri Aterpetxea, SL» sozietateak, Antonio Oteiza Embil jaunak eta Azkoitiko Udalak Antonio Oteiza Fundazioa eratu zuten 2005eko urriaren 11n

Tercera.– Los aspirantes que deseen tomar parte en la presente convocatoria deberán acompañar a su solicitud un Curriculum Vitae en el que harán constar:

- Títulos académicos.
- Puestos de trabajo desempeñados.
- Experiencia profesional y de gestión sanitaria.
- Estudios, cursos, ponencias, publicaciones conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen oportunos manifestar.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjuntar además la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados. Así mismo, podrán acompañar cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

Cuarta.– La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución de esta Gerencia, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Quinta.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Donostia-San Sebastián, a 11 de febrero de 2008.

El Director Gerente del Hospital Donostia,
MÁXIMO GOIKOETXEA FERREIRO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

1568

ORDEN de 29 de enero de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada Antonio Oteiza Fundazioa.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Antonio Oteiza Fundazioa, de Azkoitia (Gipuzkoa), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por D. Antonio Oteiza Embil, el Excelentísimo Ayuntamiento de Azkoitia y la mercantil «Kukuherrri Aterpetxea, S.L.» se ha constituido la Fundación deno-